

EH Bilduren proposamenak

2025 udal aurrekontuei aurkeztutako zuzenketen dokumentua

1. Irungo uholde-arriskugarritasunari buruzko azterketa eta plana egitea, klima-aldaketak izan ditzakeen ondorioei aurre egiteko.

Irunek uholde arriskuko eremuak badituela kontutan izanda eta aldaketa klimatikoak uholde-arrisku hau larrituko duela jakinda, garrantzitsua da egoera honi aurre egingo dion neurri plan bat aurreikustea.

2. Iparralde-Gal eremuan kirol-instalazioak berroneratzeko eta eraikitzeko azterlana.

Iparralde Gal eremuak berroneratzeko duen beharra nabaria da. Gainera, bertan egun kirol ekipamenduak kokatzen direnez, aukera egokia izan daiteke bertan kirol instalazio gehiago kokatzeko, eremua kirola praktikatzeko gunek bilakatze aldera.

3. Irungo mendebaldean kiroldegi baten proiektua garatu eta hau eraikitzea.

Irungo biztanleria kopurua eta kirol azpiegituretan dagoen gabezia kontutan izanda, hirugarren kiroldegi baten beharra dagoela uste dugu.

4. IRUNViri etxebizitza publikoa erosteko egiten zaion ekarpena handitzea bigarren eskuko etxebizitza publikoen eskualdaketetan erosteko eskubidea baliatuz.

Irunen alokairuzko parke publikoa handitzea beharrezkoa da etxebizitzaren arazoari aurre egiteko. Jabegoan diren Babes Ofizialeko Etxebizitzak alokairura aldatzea arazo honi aurre egiteko neurria aproposa da, alokairuzko etxebizitza kopurua handitzea ekarriko duelako.

5. Urdanibia Berriko Haurtxokoaren jarraipena urtarriletik ekainera bitarte.

Urdanibia Berri auzo elkarteak egin zuen eskaera honi urte osoko jarraipena eman behar zaiola uste dugu, ondoren zerbitzuaren balorazioa egin ahal izateko.

6. HAZen arreta-puntu eta Gizarte Zerbitzuen arreta-puntu bana dituzten auzo-bulegoak Anaka, Ventas, Behobia eta Artia auzoetan.

Zerbitzu publikoak eta bereziki udal zerbitzuak herritarrengandik gertu egon behar dute, udala eta herritarren arteko harremana azkartu eta hobetzeko.

7. Dunboako patioa eraberritzeko eta hau auzoan integratzeko proiektua.

Dunboako eskolako patioak eraberritze beharra du. Gainera, eraberritze hau patioa auzora irekitzeko aukera dela uste dugu.

8. Anaka auzoan plaza bat diseinatu eta sortzeko estudioa.

Anaka auzoan elkarbizitza errazten duten espazio zabalen falta handia dago. Beraz, bizilagunen arteko harremanak ehundu eta erraztuko dituen gune baten eraikuntza garrantzitsua izango da kohesio soziala sendotzeko eta auzotarren harremanak indartzeko.

9. Dunboako ubidearen gaineratik oinezkoentzako zubi bat eraikitzeke proiektua egin eta obra burutzea. Zubi honek Korrokoitz eta Arbes lotuko lituzke.

Korrokoitzeko eremua eraberritzeko orduan Arbeseko auzoarekin lotura bermatzea garrantzitsua da. Horretarako, oinezkoentzat zubi bat eraikitzeak bi gune hauen oinezko lotura hobetuko du.

10. Urdanibia kapera Kafe Antzoki bihurtzeko azterketa eta eraberritzea.

Kafe Antzoki bat izateak aberastasuna ekarriko lioke hiriari. Gainera, eskaintza kulturala aberastu eta bertako kultura eragileekin harremana sendotuko luke.

11. Erdigunean kokatzen diren parkingen kudeaketari buruzko azterketa, El Pinarreko parkingaren eredia erreferentzi bezala hartuta.

Isuri Gutxiko Eremuaren ezartzeak ekar ditzakeen aparkaleku arazoei konponbideak bilatzeko Erdiguneko Parkingen kudeaketari buruzko hausnarketa egitea garrantzitsua da, baita bizilagunen erabilerarako planteamentuak egitea ere. Mendibil, Palmera Montero, Luis Mariano, San Juan, Pio XII eta Belartzako parkingetan El Pinarreko parkingeko kudeaketaren antzeko ereduak martxan jartzeko aukerak aztertu beharko lirateke.

12. Autobusen kudeaketa kontratuaren partida handitu.

Isuri gutxiko eremuaren ezartzeak autobus lineak indartzeko beharra ezinbesteko egiten du. Gainera, hauen diseinuan aldaketak egin beharko dira. Horretarako aurrikusia dagoen partida eskasa izango dela uste dugu.

13. Mintzalaguna programa indartu.

Mintzalaguna programa dinamizatzeko pertsona baten kontratazioa.

14. Udal Euskaltegiko komunikazio plana egin eta plan hori garatzeko diru partida sortu.

Udal Euskaltegiak komunikazio plan bat beharko luke eta plan horretan jasotzen diren helburu eta ekintzak aurrera eramateko baliabideak beharko lituzke.

15. Ostalaritzan eta Merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina bat aurrera eraman.

Ostalaritzan eta Merkataritzan euskararen erabilera eta ezagutza hobetu behar dira. Horretarako komunikazio eta formazio kanpaina bat abian jartzea proposatzen dugu.